

{ datorrena } Maite UBIRIA BEAUMONT

Etxebizitza legea(k): elefantea gela erdian dago

Hutsezinezko detektagailurik ez bada ere, eskuinaren lerroetan etxebizitza legeek sortzen duten zalapartak azterketarako elementu interesgarriak eskaintzen ditu. Joan zen asteburuaren atarian ezagutu zen inbestidura babestu zuten ezkerreko

indar nagusiekin Madrilgo gobernuak erdietsi duen akordioa. Legealdia bukatzeaz izanik, zalantza handiak zeuden egitasmoa aurrera ateratzeko aukeraren inguruan. PSOE duda-mudatan murgildu da herritarren ongizateari bete-betean eragiten dion gai honetan, baita Pedro Sanchez Moncloan jartzearen truke agindutako bertze hainbat egitasmotan ere. Gobernuaren azkeneko hilabeteetan zorrak pilatzeko arriskua bazuen Sanchezek. Ezin da ezkutatu, gainera, ezinegon handia sortu dutela eskuinari hatsa emanez hartu dituen hainbat deliberok. Mozal Legearekin, batik bat, baina baita, neurri handi batean, Lan Erreformen inguruan bultzaturiko erdipurdiko moldaketen bidez ere, gorrian zuen kon-tagailua. Gorri garratzean, alegia, eskuin mediatiko-judizialaren aldetik jazotako presioaren aurrean amore emanez, sexu askatasunen aldeko legearen mamia ahulduz onarturiko arrabotaketa ere zerrenda horretan sartuz gero. Testuinguru lainotsu horretan jakinarazi zen ERC eta EH Bildu alderdien bultzadapean espainiar Gobernuak, azkenik, atea zabalduko ziola Etxebizitza Legeari. Eta, erabaki horren eskutik, urrutiko zein bertako eskuina asaldatu da inongo filtrorik gabe.

Hauteskunde kutsua egotzi zioten batzuek, hilabete luzeetako atzerapenarekin bada ere, aldeztu aurretik izenpeturiko “kontratuan” agertzen zen legea aurrera egi-teari. Espainiar estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko eskuduntzen inguruko balizko zapalkuntzari heldu zioten besteek. Alderdi Popularrak udal hauteskun deetan Bilbon aurkeztuko duen zerrenda itxiko duen

Isabel Ayusok eta bere onespenearekin Genovara heldu zen Alberto Nuñez Feijook ez dute gustuko ekimena.

Bizitzen pribatizazioa eskaintza politiko gisa hartzen duen espainiar eskuinak ez du laketa, besteak beste, alokairu prezioen igoerari muga jartzea proposatzen duen lege-egitasmoa. Ulertzekoa da, neurri gabeko negozioari muga jarritik etxeko interesak nozitu lituzkeelako. Bertako eskuinari dagokionez, Madrilen hitzarturiko akordioaren aurka boladaka tiro egin du EAJk.

2015ean, EH Bildu eta PSE arteko akordioaren bidez, etxebizitza eskubide subjektibo gisa arautzen zuen legea onartu zuen doi-doi Gasteizko Legebiltzarra. EAJk –baita PPK ere– kontra egin zion, ziurgabetasun juridikoa sortuko zuelakoan. Azken garaian, ordea, etxebizitzaren inguruko kezka areagotu den unean,

EAEko Etxebizitza Legeari kontra egin zioten 2015ean EAJk eta PPK. Azken alderdi horrek Auzitegi Konstituzionalera jo zuen helegite baten bidez. Barrikada berean agertu dira, 2023an, Madrilen

orduan errefusatu zuen araua nahierara aldarrikatzen entzun ditugu jeltzaleak. Nahiz eta Konstituzionalak partzialki bermatu zuen arauak eskaintzen dituen tresnak erabiltzeko prest ez izan. Madrilen onarturiko legea ez dator, bada, ziurtasunak ematera? Mamiari buruz ez baduzu hitz egin nahi, formak salatu. Gomendio zaharrari heldu dio EAJk. Izan ere, etxebizitza hutsak eta alokairu turistikoa hedatzen diren bitartean, auzoak biztanle iraunkorrak galtzen dituztenean, nehorik gutxi ulertu dezake azaleko ika-miketan denbora galtzea. Herri hau gurutzatzen dituzten bidaiarien portu gisa irudikatzen duten badute arazoa, elefantea gelaren erdian dagoelako. •